

Itzalaldi jenerala

Jakina denez, hiru modu daude telebista ikusteko: analogikoa, digitala eta sutan amorratua. Lehenengoa gaur egungo telebista da, ohikoa, zaharra, egutegi jakin baten arabera itzali egin beharko dena. Bigarrena telebista analogikoa ordezkaturiko duena da, kanal gehiago izateko, irudi eta soinu kalitate hobegoarekin. Telebistako zati aktibo bilakatuko gara gainera, bozketetan parte hartu ahalko dugu eta gure iritzia eman telebista-saioretan. A zer gozamina deskodegailua piztu eta eternitatera pasako zaren beste kalakari bat bezala, horoskopoak iragartzen duenaren guztiz kontra, lan istripuan hil diren horiek kontent daudela argudiatzea. Ez dute aurten zorte txarrik izango! Itzalaldi analogikoa iristen denean, seinale digitala jasoko duen hargailua beharko du gure telebistak, LTDa (TDT). Ez baduzu instalazioa egokituta, etxeko administratzailearekin hitz egin edo mantentze lanaz arduratzen den telekomunikazio-instalazioarekin edo antena konpontzailearekin, edota, labur, hirurei deitu, eta hark edo honek jarriko dizu, non ez dakit, baina, lasai, emakumea, zaude ziur egokituko dizutela antena LTDra. Itzalaldi analogikoa emisio analogikoen amaierarako jarri duten data da. Oro har, aurtengo apirilaren 3an emango da. Baina Itzalaldia ez da bat-batean emango. Eskerrak! Pentsa epailearen aurrean salatzen zaudela kolpeak jasan dituzula buru eta testikuluetan. Poltsa ere aplikatu dizutela behin baino gehiagotan eta elektrodoak egingo zizkizutela mehatxatu zintuztela. Postura bortxatuetan egotera eta flexioak egitera behartu zaituztela denbora luzez, pentsa hori guztia salatzen ari zarela epailearen aurrean, eta seinale analogikoa itzali egiten dela.



José Luis Padrón

Rozas

Urkiza

Pentsatze hutsarekin! Ez, gizona, lasai, iragarkien bitartez eta telebistan agertuko diren azpituduen bitartez abisua pasako digute-eta. Prozesua fase desberdinetan, apurka-apurka burutuko da, oherakoan bezala, aurrena antiojuak kendu eta ondoren hortz postizoak ontzi batera. Nolanahi ere, berandu gabiltza. A Fonsagrada galiziar

herri txikia (Lugoko probintzian) izan zen telebista analogikoaren teknologia utzi eta digitalean bakarrik emititzen hasi zen lehena. Beste aldaketa historiko bat, gurean aurreikusitako data baino bi urte arinago egina. Hango lurra hemengoa baino interferentziarik gabeagokoa izan baita beti kazikeentzako kanalekin. Gertakaria “jakintzaren gizartean bete-betean sartzeko aupadatzat” jo zuen Xuntako presidentek. XXI. mendeko telebistari ongetorria. Arratsaldeko 14:00ak baino lehen seinale analogikoa desagertu zen Galiziako herri txikian. Urrutiko (badaezpada) aginte baten bidez eman zioten Touriñok eta ume batek amaiera telebista analogikoari, jai-giroan. Lehenengo telebista 1961ean iritsi zen A Fonsagradara, eta biztanleek aurrenekoz ikusi ahal izan zituzten irudien artean Vasco da Gama eta Real Madril taldeen arteko futbol partiduen artean daude, O Burato tabernan, eta “primeran” ikusi omen zen, garaiko egunkariak diotenez. Bost hamarkada geroago, haietako teleikusle batek, Amadorrek, teknologia berriaren etorrera ospatu zuen, arratsaldean fut-

bol partida etxean ikusteko aukera emango ziolako, orain arte ez bezala, inora mugitu beharrik gabe, eta deiar egin zuen: “Handia inbentoa, gero!”. Eta hirugarrenaren zain egongo zarete, baina ez dut telebista ikusteko hirugarren moduaz jarduteko umorerik. Zinez eta benetan, beharrezkoa irizten al diozue? ■

Itzalaldi analogikoa emisio analogikoen amaierarako jarri duten data da. Baina Itzalaldia ez da bat-batean emango. Eskerrak! Pentsa epailearen aurrean salatzen zaudela kolpeak jasan dituzula buru eta testikuluetan